

IKASTAROA

Pedagogo, psikologo, hezitzaile eta medikuentzat antolatuta dago. Bitxia da beren jarduna ikustea

HELBURUA

Ume bihurtu nahi dituzte aurrez aurre dituzten andra-gizonak, ondoren umeak hobeto uler ditzaten

hobeto uler ditzaten. «Izan ere, oinazea soilik oinazetik ulertzen da, eta poza poetik».

Sentitze hutsarekin aski ez denez, ikasleak sentitu dutenaren gainean gogoeta egitera ere bultzatu nahi dituzte ikastaroko arduradunek. «Paper bat eman-go dizuegu orain. Han zer sentitu duzuen idaztea nahi dugu. Nahi duzuen idatzi, pentsatu gabe...».

Ostiral arratsaldean ekin zioten ikastaroari. Gaur amaituko dute. Psikomotrizitate praktika-ren oinarri txiki bat baino ez dute jasoko ikasleek. Hastape-na izango da. Nolanahi ere, argi dute irakasleek ez dela erraza izango. «Oinazea agertuko da, krisiak ere bai, baztertua senti-tzea zer den oroitu dute askok».

Umeekin nola jardun behar den ikasteko

Psikomotrizitate praktikan ikasleek ez dute soilik beren barrura begiratzen ikasten. Ondoren umeekin nola lan egin behar duten ere ikasten dute. Umea bere osotasunean ulertzeko ga-koak jasotzen dituzte eta ja-rraian, hiru esparru nagusitan banatzen dute umeekin egiten duten lana.

Esparru batean sentitzera eta mugitzera bultzatzen dituzte haurrak: jauzi egin, lasterkan aritu, arrastaka ibiltzera. Jolas sinbolikora bultzatzen dituzte ondoren, material bat ematen diete eta orotariko rola bete-tzen dituzte umeek. Amatxo bihur daitezke, edo superheroi, edo telebistako pertsonaia eza-gun... Errealitatea beren erara eraldatuta bizirik jartzen dute era horretan. Jarraian, poliki-poliki, pentsamendura bultza-tzen dituzte haurrak. Margola-nak, idazlanak eta ipuinak ho-rretarako tresna dira.

«Kontua gorputzaren espre-sioa, jolas sinbolikoa eta pen-tsamendua lotzea da», diote ira-kasleek. Horretarako, ordea, garrantzitsua da jarduera horre-tan ariko diren profesionalak izan ziren ume hura biluztea. Larri gorritan utzi arte.

LAGURAEAN

KLONAZIOA

Lehen panda klonikoa egiteko prest daude Txinako zientzialariak

Txinako Animalien Ikerketa Institutuko zientzialari batek atzo aditzera eman zuenez, urtebete barru edo gehinez ere bi urteren buruan prest egongo dira panda klonatze-ko. Urrats handia izango li-tzateke hori, aspaldiko urte-etan desagertzeko bidean dagoen animalia baita. Adi-tzera eman dutenez, litekee-na da klonazioa gauzatu ahal izateko panda enbrioi kloni-koa katu eme baten uteroan ezarri behar izatea.

ENERGIA ITURRIAK

Japonian erreaktore nuklear bat itxi behar izan dute, akats bat atzeman baitute

Japoniako Hamaoka zentral nuklearreko erreaktore bat itxi behar izan zuten atzo. Izan ere, akats bat izan zen hozkailu sisteman, eta 20 li-tro ur atera ziren handik. No-lanahi ere, aditzera eman zu-tenez, isuria ez zen kutsaga-rria izan. Chubu Electric Power konpainiako ardura-dunek lasaitasun mezua za-baldu zuten.

KLIMA ALDAKETA

Kyotoko Protokoloa berresteko prestatzen ari dira Europako Batasuneko herrialdeak


Europako Batasuna osatzen duten 15 herrialdeek dato-zen egun edo asteetan Kyo-toko Protokoloa berresteko asmoa azaldu dute. Klima al-daketa eragiten duten gas isurketa kutsagarriak mu-rrizteko konpromiso sorta hitzartzen du itunak, eta Na-zio Batuen Erakundearen aurrean aurkeztu behar da. Antza egin beharreko urra-tsetan atzeratuta dabiltz Grezia eta Italia, baina ia dena prest dago.

IKERKUNTZA

Esklerosi anizkoitzari aurre egiteko lagungarri izan daitekeen gai kimiko bat aurkitu dute

Esklerosi anizkoitza nerbio-ak babesten dituen ehun bat suntsitzen delako gertatzen da. Ameriketako Estatu Ba-tuetako Mayo erietxean aur-kitu berri duten gai kimiko batek, ordea, suntsipen horri aurre egiten lagun dezake. Aurkikuntza oraingoz iker-keta fasean baino ez dago, baina zientzialariak itxaro-pentsu agertu dira.

MEDIKUNTZA. Munduan bizirik irautea lortu duen jaioberrik txikiena da



MARCO BUCCO / EPA

Florentziako 'perla' aurkeztu dute

Herenegun Florentziako Careggi ospitaletik albis-te txundigarria heldu zen, izan ere, jaiotakoan —otsailean izan zen erditzea— 285 gramo baino ez zituen ume txiki batek bizirik irautea lortu zute-la azaldu zuten. Atzo, ume txikiaren ondoan ar-

gazkia egin zuten lorpenaren atzean egon diren medikuek, Firmino Rubatelli (eskuinean), Marg-herita Psaraki (ezkerrean) eta Giovanna Betini (er-dian). Haurra goiztiarra da, haurdunaldiaren 27. astean jaio zen. Maitasunez, *perla* deitzen diote.

EUSKALDUNON

**DOAN
EGUNKARIArekin
EKAINAREN
2an**

02-03

INFORMAZIO
PRAKTIKOA

**02-03 GIDA
KOMERTZIALA**

Profesionalen eta merkataritza alorreko helbide eta telefonoz osatua

80.000 ALE

KOLOREETAN

ZURI EGOKITUA

- Erabilgarriagoa
- Eraldatua

aurkibidea
SEKTOREKA

aurkibide
OROKORRA

aurkibide
ALFABETIKOA

gida
WEBGUNEAK

Egunkaria